b) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatua ez dagoen kasuan

Tasa: Beste udalerrietako erabiltzaileek 100 euro hilean.

Likidazioa eta ordainketa: erabiltzailea erroldatuta dagoen udala.

3.- Tutoretzapeko etxebizitza partekatuak.

a) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatuta dagoen kasuan

Tasa: baliabide honen erabiltzaileei hilabeteko diru-sarrera baliokidea zehaztuko zaie. Hilean ordaindu beharreko tasa hileko diru-sarrera baliokidearen %10 izango da, eta gutxienez 100,00 euro ordainduko dira.

Likidazioa eta ordainketa: zerbitzuaren erabiltzailea.

b) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatua ez dagoen kasuan.

Tasa: Beste udalerrietako erabiltzaileek 200 euro hilean.

Likidazioa eta ordainketa: erabiltzailea erroldatuta dagoen udala.

## 4.- Harrerako etxebizitza.

### a) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatuta dagoen kasuan

Tasa: zerbitzu honen erabiltzaileek Hernanin erroldatuta baldin badaude ez dute tasarik ordaindu beharko.

Likidazioa eta ordainketa: ez dago likidaziorik.

### b) Zerbitzu honen erabiltzailea Hernanin erroldatua ez dagoen kasuan

Tasa: 100 euro hilean.

Likidazioa eta ordainketa: erabiltzailea erroldatuta dagoen udala.

## 4.16 HERNANIKO UDAL KIROLDEGIA ZERBITZUAK ERABILTZEA

**Tarifak:** %2,6ko igoera

### a)Kiroldegian hamabi hilabetez abonaturatuen kuotak

	2024ko tarifak
Familiarra	<b>247,50</b>
Banakakoa	<b>163,60</b>
Adintxikikoa	<b>102,60</b>
Kirolari federatua	<b>19,75</b>

### b)Kiroldegian sei hilabetez abonaturatuen kuotak

	2024ko tarifak
Familiarra	<b>160,70</b>
Banakakoa	<b>106,25</b>
Adintxikikoa	<b>66,75</b>

### c) Kiroldegian hiru hilabetez abonaturatuen kuotak

	2024ko tarifak
Familiarra	<b>83,50</b>
Banakakoa	<b>55,20</b>
Adintxikikoa	<b>34,60</b>

### d) Sarrerak

	2024ko tarifak
Adindunaren sarrera	<b>6,15</b>
Adintxikikoen sarrera	<b>3,95</b>

Adintxikikoen sarrera(6-36 hilabete)	<b>2,00</b>
Adintxikikoen sarrera (0-6 hilabete)	<b>0,00</b>
Bonoa heldua (10 erabilera)	<b>43,00</b>
Bonoa adin txikikoa (10 erabilera)	<b>27,70</b>

e) Erabiltzaileentzako zerbitzuak (abonatuak eta ez abonatuak)

	2024ko tarifak
Sauna, saio 1	<b>3,85</b>
Squasha, saio 1	<b>5,40</b>
Trinketea, ordu bat	<b>5,40</b>
Pilotalekua, ordu 1	<b>12,10</b>
Pilotalekuko argia, ordu 1	<b>6,50</b>
1. pista	<b>41,30</b>
2. pista	<b>35,30</b>
Igerilekuko kale 1	<b>35,30</b>
Tatamia, ordu bat	<b>41,30</b>

f) Erabiltzaileentzako zerbitzuak (abonatuak edo sarrerako bonoak dutenentzat)

	2024ko tarifak
Sauna, saio 5	<b>17,00</b>
Sauna, saio 10	<b>30,15</b>
Squasha, ordubeteko 5 saio	<b>21,80</b>
Squasha, ordubeteko 10 saio	<b>41,05</b>

(\* )Abonatuak dohan izango dute instalazioen erreserba (frontoia, squasha, trinketea, pista) 48 ordu baino lehen egin ezker eta libre badago

g) Kiroldegiko instalazioak alokatzeko prezioak: Ikuskizunetarako, kirolaz kanpoko emanaldietarako edo maila profesionaleko kirol ekitaldietarako: Pilotalekua edo kirol pista ordu bakoitzeko		
Astegunetan, 22:00ak arte		<b>104,80</b>
Astegunetan, 22:00etatik 06:00ak arte		<b>162,15</b>
Igande edo jaiegunetan 22:00ak arte		<b>118,60</b>
Igande edo jaiegunetan, 22:00etatik 06:00ak arte		<b>181,20</b>
Aparteko orduak		<b>241,10</b>
Fidantza		<b>1945,70</b>

<p>- Pilotalekua edo instalazioak behar bezala erabiliko direla bermatzeko ezarriko den fidantza</p> <p>Fidantza hori udal kiroldegiko bulegoetan ordaindu behar da, dena delako ikuskizuna edo ekintza egin baino lehen, legeak agindutako eran.</p> <p>Ordaindu beharreko guztiak ordaindu eta kirol zuzendariaren aldeko txostena jaso ondoren itzuliko da fidantza</p>		
<p>- Irabazi asmorik gabeko elkarteek eskatzen edo antolatzen dituzten ekitaldietan, ekitaldi hutsak irauten duten denbora baino ez dute ordaindu beharko antolatzaileek: esan nahi da tarifak ez diola ukituko ekitaldi antolatu ahal izateko behar den muntatze edo desmuntatze denborari.</p>		

#### h) Bestelako tasak

	2024ko tarifak
Kaiolako giltza puskatzea	<b>85,35</b>
Takilako giltza galtzea edo puskatzea	<b>5,35</b>
Karneta galtzea edo puskatzea	<b>3,55</b>

#### 4.17 POTENZIALKI ARRISKUTSUAK DIREN ANIMALIAK UDAL ERREGISTROAN INSKRIBITZEA

**Tarifak:** %2,6ko igoera

Kontzeptua	Euro
Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak Udal Erregistroan inskribatzea eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeagatik baimena emateagatik edo berritzeagatik	<b>79,70</b>

#### 4.18 - DOKUMENTUAK ETA BESTE MATERIAL BATZUK.

**Tarifak:** %2,6ko igoera

UDALZAINGOAREN ZERBITZUAK	
Kontzeptua	Euro
Atestatuen kopia	<b>21,20</b>
Karabinek baimentzea	<b>8,70</b>
Hainbat txostenen kopia	<b>8,70</b>
Istripuen adostasuneko txostenen kopia	<b>8,70</b>
Trafikoko Istripuen atestatuen kopiak	<b>90,00</b>

<b>FOTOKOPIAK berria</b>	
Kontzeptua	Euro
DIN A4 (bakoitzeko)	<b>0,20</b>
DIN A3 (bakoitzeko)	<b>0,30</b>

Beste motatakoa kopiak: planoak... (bakoitzako)	1,55
USBan informazioa ematea	5,15
<b>Kontzeptua</b>	Euro
Irudi digitalizatua	0,9
Zuri beltzean inprimatutako orria.	0,15
Koloretan inprimatutako orria (A4)*	0,20
Koloretan inprimatutako orria (A3)*	0,85

#### 4.19 SUSTATZAILE PARTIKULARRAK UDALAREN KARTOGRAFIA EGUNERATZEAGATIK

**Tarifak:** %2,6ko igoera

Kontzeptua	Euro
Urbanizazio proiektuak (ondoriozko azalera publikoa neurtzea)	
Lehengo hektarea edo zatia	1152,40
Handik aurrerako bakoiza	714,10
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikuntza berriko eraikinentzat emanak	
Lehengo hektarea edo zatia	1152,40
Handik aurrerako bakoitza	714,10
Obra handiak egiteko lizentziak, kartografia aldatzea ekarriko duten eraisketak egiteko emanak	
Lehengo hektarea edo zatia	714,10
Handik aurrerako bakoitza	714,10
Obra handiak egiteko lizentziak, fatxaden lerrokadurari edo bide publikoari nolabait eragiten dioten eraikin eraberritzeak egiteko emanak	714,10
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikinak altxatzeko emanak	254,85
Obra handiak egiteko lizentziak, eraikinak handitzeko emanak	383,80
Obra handiak egiteko lizentziak, gero eraikuntza lizentziarik eskatuko ez duten lur mugimenduak egiteko emanak	394,55
Obra handiak egiteko lizentziak, jolas lekuak, aisialdiko tokiak edo antzekoak estaltzeko emanak	191,35
Obra handiak egiteko lizentziak ,zuinketak egiaztatzeko ekipo topografikoa beharrezkoa duten obra handietarako lizentziak	404,05

#### 4.20 HIRIBUSA:

Tarifen integratioko sistema jartzeko udalak sinatutako lankidetzeta-hitzarmena (Udalbatzarraren 2013ko otsailaren 26ko akordioa) eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeke Erregelamendua ( Udalbatzarraren 2014ko azaroaren 25eko akordioa) betez, ITG tarifa sistemak araututako tarifak eta erregelamenduak ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

#### Gipuzkoako Garraio Agintaritzaren Batzar Nagusiak onartuak 2022/12/22an

BILETEA		URB3
---------	--	------



Noizbehinkakoa		1,35 €
Gauekoa		2,00 €
MUGI TXARTELA	Deskontuak	<b>URB3</b>
1-20 bidai	74,0%	0,35 €
21-50 bidai	79,0%	0,28 €
51 bidai edo gehiago	95%	0,07 €
Izengabea	66%	0,46 €
* Tarifak Bez barne		

## 5. IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOETAN IBILGETU, BERTATIK JASO ETA ONDOREN ZAINZAPEAN EDUKITZEKO ZERBITZU PUBLIKOAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

%2,6ko igoera

Kontzeptua	Euro
<b>a) Ibilgailua erretiratzea</b>	
Bizikletak eta ziklomotoreak, bakoitzarengatik	<b>13,65</b>
Motozikletak, trizikloak, moto-karroak eta antzeko beste ibilgailuak, bakoitzarengatik	<b>27,40</b>
Turismoak eta 3.499 kg-ko tara arteko ibilgailuak, bakoitzarengatik	<b>88,55</b>
Kamionetak, kamioiak, traktoreak, erremolkeak, autobusak eta 3.500 kg-ko taratik gorako tonelajea duten ibilgailu bakoitzarengatik	<b>187,15</b>
<b>b) Erretiratutako Ibilgailuen depositua eta zaintza</b>	
Bizikletak eta ziklomotoreak, egun edo zatiki bakoitzarengatik	<b>6,00</b>
Motozikleta, trizikloak, moto-karroak eta antzeko bestelako ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik	<b>9,55</b>
Turismoak eta 3.499 kg-ko tara arteko tonelajea duten ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik.	<b>17,80</b>
Kamionetak, kamioiak, traktoreak, erremolkeak, autobusak eta 3.500 kg-ko taratik gorako tonelajea duten ibilgailuak, egun edo zati bakoitzarengatik	<b>38,00</b>
<b>c) Ibilgailua 24 orduz edo frakzio batez ibilgetzea: ibilgailu bakoitzarengatik</b>	
Bizikletak	<b>4,20</b>
ziklomotoreak	<b>14,75</b>
Motozikletak, trizikloak, moto-karroak eta antzekoak	<b>29,60</b>
Turismoak, Kamionetak, eta antzekoak 3.000 kg-tik beherako tona gordina	<b>60,20</b>
3000 eta 7500 kg-ko tona gordina bitarteko kamioak	<b>227,25</b>
7.500 kg-tik gorako auto eta kamioak	<b>227,25</b>
Gainontzeko ibilgailuak	<b>74,00</b>
<b>d) Ibilgailua 24 ordutik gora ibilgetzea egun bakoitzeko eta ibilgailu bakoitzarengatik</b>	

Bizikletak	<b>2,05</b>
ziklomotoreak	<b>3,70</b>
Motozikletak, trizikloak, moto-karroak eta antzeakoak	<b>3,70</b>
Turismoak , Kamionetak, eta antzeakoak 3.000 kg-tik beherako tona gordina	<b>14,80</b>
3000 eta 7500 kg-ko tona gordina bitarteko kamioak	<b>44,40</b>
7.500 kg-tik gorako auto eta kamioak	<b>44,40</b>
Gainontzeko ibilgailuak	<b>22,15</b>

## 6.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK

### 6.2 IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK

Tarifa: 2023ko tarifak mantentzen dira

#### 1) URTEROKO ZIKLOAK

Haurrak	3,5
Helduak	8
Helduak bonoa	20

#### B) ZINEA

Haurrak	3
Helduak	4,5
Ikuslearen eguna	3

#### C) EMANALDI BEREZIAK

Emanaldi tipo A sarrerak	10
Emanaldi tipo B sarrerak	15
Emanaldi tipo C sarrerak	5

**Bigarrena : Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantzaren 8. artikuaren 5. atalari parrafo berri bat sartzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, horrela geratuko da:**

#### 8.artikulua

1. Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, errenergua aplikatuko da ordenantza honetako eranskinean jasota dagoen zergaren kuota likidoaren gainean.

2. Errenergua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

3. Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltzekoak diren lokalak etxebizitza erabilera duten ondasun higiezinak hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira, finka erregistral bakarra osatzen dutenean.

4. Ondorio horietarako ere, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatu badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.

5. Bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titulartasuna Administrazio publiko batena bada aski izango da Administrazio horrek aurkeztutako deklarazioa, ondasun higiezinak egiaz bizilekutarako direla jotzeko. Udalak, hala ere Administrazio titularrari errekeritu ahalko dio egiazta dezala ondasun higiezinaren horiek bizilekutarako direla. Errekargu hori ez zaie inola ere aplikatuko bizitegi erabilerako ondasun higieziari, izaera sozialeko etxebizitza publikoko planetara destinatuta daudenean.

6. Ez zaie errekarua aplikatuko Udalaren eta haren erakunde autonomoen jabetzako etxebizitzari.

7. Egiazko ohiko bizileku ez diren bizileku erabilerako ondasun higiezinak **salbuetsita** egongo dira errekargu hau aplikatuzetik, artikulua honetan ezarritako baldintzetan, baldin inguruabar hauetakoren bat betetzen badute:

7.1 Ostatu emateko jarduerari, pentsioei, hostalei... atxikitako ondasun higiezinak, eta, modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretako direnak. Nahitaezkoa izango da higiezinaren katastroko titularrak izatea, edo, hala badagokio, jardueraren titularrari errentan emateko kontratu bat izatea, urtebetekoa edo luzeagoa; eta, garatutako jarduera ekonomikoaren zergaren agiria ekartzea.

7.2 Bere helburuen artean ondasun higiezinaren errentan ematearena duen erakunde publiko baten esku jarritakoak.

7.3 Batuta dauden etxebizitzak, nahiz eta jabetza erregistroan bi finka izan eta bi ordainagiri eduki, baina ondasunen jabea bakarra izan behar da.

7.4 Herentzia batekoak diren etxebizitzak, 2 urteko aldiaren, titularrak hil zenetik. Salbuespen hau aplikatzeko derrigor herentziaren eskriturak edo beharrezkoa den dokumentazioa Udalean aurkeztu behar dira legez ezarritako epetan, Hiri Izaerako Ondasun Higiezinaren balioaren Gehikuntzaren zergaren aitortza egiteko.

7.5 Antolamenduaz kanpo daudenak, aurrerik deklaratuak edo hirigintza kudeatzeari lotutakoak.

7.6 Hirugarren Adineko Egoitzetan erroldatuta dauden pertsonen titulartasuneko etxebizitzak. Salbuespen hori egoitzan sartu aurretik egoiliarren ohiko etxebizitza izatearen baldintza betetzen duen etxebizitzari bakarrik aplikatuko zaio. Egoitzan erroldatzen den egunetik kontatzen hasita, 3 urterako izango da salbuespena.

7.7 Alokairuan ematen diren etxebizitzarako ondasun higiezinak. Bizitegi erabilerako izan beharko da alokairua, errentamendu kontratua eskatuko da eta kontratu horren berri emango zaio Foru Ogasunari. Alegatutako alokairuak, gutxienez, errekarua aplikatzen ari den urtearen aurreko zergaren ekitaldi fiskaleko 10 hilabeteko iraupena izan behar da. Era berean, salbuespena hau aplikatuko da dagokion zergaren ekitaldiko martxoaren 31a baino lehenago bada eta bere iraupena gutxienez 10 hilabetekoa bada. Alokairu honen berri eman behar da dagokion zergaren ekitaldiko apirilaren 15a baino lehen. Alokairu kontratua 2016ko martxoaren 31tik aurrera sinatu den kasuetan (egun hori barne), dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:  
- Etxebizitzako Gipuzkoako lurralde ordezkaritzan jarritako fidantzaren ordainagiriaren fotokopia  
- Orokorrean, kontratua indarrean dagoela frogatzeko aurkeztu beharko da aurtengo urteko urtarileko edo ondorengo alokairuaren ordainagiria, ordaintzailea identifikatzen duena.

7.8 Zergari dagokion ekitaldiaren urtarrilaren 1etik martxoaren 31a arteko epean eskritura publiko bidez eskualdatzen diren etxebizitzarako ondasun higiezinak. Eskualdaketa notarioak sinatutako eskritura publiko bidez jaso behar da eta hiri izaerako ondasunaren gehikuntzaren balioaren gaineko zergari dagokion aitortpena aurkeztua izan da horretarako ezarritako epean. Era berean, eskualdaketa horiei salbuespena hau aplikatzeko, eskualdatu beharreko finka zergaren subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izan behar da, dagokion zergaren ekitaldiaren aurreko urteko 10 hilabeteetan gutxienez Udalak egiaztatu ahal izango ditu interesatuak emandako datuak, iruzurrak saihesteko.

7.9.-Konpontzen ari diren higiezinak zerga sortze datan. Egoera hori egiaztatu beharko da obretarako udal lizentzia aurkeztuz datan. Baimendutako obrek etxebizitzan bizigarritasuna eragotzi beharko dute

7.10.- Zerga sortu aurreko hiru hilabeteetan eskualdatutako etxebizitzak, baldin eta hiru hilabeteko epean, eskualdaketa egunetik zenbatzen hasita, erositako etxebizitzan biztanleen udal-errolan izena emanda badago. Biztanleen udal-errolan inskribatzeko hiru hilabeteko epea ez da zenbatuko etxebizitza eraberritzen ari bada. Hori egiaztatzeko, udal-obretarako lizentzia aurkeztu beharko da. Hala ere, udalak edozein egiaztapen egin ahal izango du iruzurrezko egoerak saihesteko.

7.11 Prekarioan eta/edo komodatuan lagatako higiezinak

Lagapena bizitegi-erabilerarako izan beharko da. Komodatua izanez gero, kontratua eskatuko da.

Nolanahi ere, etxebizitzaren gastuen ordainagiriak lagapen-hartzailearen izenean aurkeztea eskatuko da, bai eta lagapen horietarako ezarritako zerga-betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duen agiria ere

Alegatutako lagapenak gutxienez 10 hilabeteko iraupena izan behar du errelegua aplikatzen den urtearen aurreko ekitaldi fiskaletik. Halaber, salbuespena aplikatuko zaie dagokion zerga-ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen sinatzen diren lagapenei, eta gutxienez 10 hilabeteko iraupena izango du. Dagokion zerga-ekitaldiaren apirilaren 15a baino lehen jakinarazi beharko da lagapena.

Udalak egiaztatu ahal izango ditu interesatuak emandako datuak, iruzurrak saihesteko

**Hirugarrena- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantzaren 2. Eranskinaren 01 atala: familia ugariak**, izenekoa, **aldatzea**, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, **horrela geratuko da**:

Familia bereziak	90	%
Familia orokorrak	50	%

## HOBARIA IZATEKO BALDINTZAK

A-1.- Bizikidetzta-unitateko kide bakar batek ere ezin du izan hiri ondasun higiezin baten baino gehiagoren jabe. Dena den, arau honek honako salbuespen hauek izango ditu:

1- Ondasunak izatea subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, eraikin edo etxebizitza-bloke berean kokatutako garajea eta trastelekua barne, edo, hala badagokio, ohiko bizilekutik hurbilen dagoen garajea.

2- Ondasunak izatea ohiko etxebizitza (garaje eta trastelekua) eta lokal bat, lokal horretan bizikidetzta-unitateko kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen badu. Kasu honetan, lokalak alta emanda egon beharko du jarduera ekonomikoaren gaineko zergan.

A-2.- Bizikidetz-unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 176.061,68\* euroko muga.

\*Zenbateko hori urtero eguneratuko da balio katastralen eguneraketarekin batera.

A-3.- Ez da murrizketarako eskubiderik izango bizikidetz-unitateko kideren bat ohikoa ez den etxebizitza baten jabe bada, honako kasu hauetan izan ezik:

1- Etxebizitza horretan usufuktu-eskubide bat eratu bada eta eskubide horrek indarrean jarraitzen badu, usufuktuduna etxebizitza horretan erroldatuta dagoela. Etxebizitzaren jabetza-eskriturak eta errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko dira.

2- Etxebizitza horren titulartasuna % 100 bizikidetz-unitateko kideena ez bada, betiere etxebizitza horretan norbait erroldatuta badago eta jabetza herentzia baten bidez eskuratu bada. Etxebizitzaren jabetza-eskriturak eta errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko dira, bai eta alokairu-kontratua ere, baldin eta erroldatutako pertsona ez bada etxebizitzaren titularra.

3- Etxebizitza hori %100 bizikidetz-unitateko kideena izanda ere, ohiko etxebizitza ez izatearen arrazoa honako hauetakoren bat baldin bada:

a) Antolamenduz kanpo egotea, aurri-egoeran egotea edo hirigintza-kudeaketari lotuta egotea. Egoera hori agiri ofizial baten bidez egiaztatatu beharko da.

b) Bizikidetz-unitateko kide guztiak elkarrekin bizitzeko irisgarritasun- edo espazio-arazoak egotea.

Kasu horretan, etxebizitza hori alokairuan edo erabilera-lagapenean jarri beharko da. Errolda-ziurtagiria eta dagozkion kontratuak aurkeztu beharko dira.

## B) Ondare higigarriak

B-1 Bizikidetz-unitatean trakzio mekanikoko ibilgailu bat baino ezin izango da matrikulatu. Ibilgailu hori ezingo da 13,99 zaldi fiskaletik gorakoa izan.

Arau horrek honako salbuespen hauek ditu:

B-1.1 Hauek ez dira kontuan hartuko zaldi fiskalen muga aplikatzeko:

1.- Lanerako behar-beharrezkoak diren ibilgailuak. Kasu horietan, egoera hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (EJZren epigrafea, matrikula agertzen dela). Ibilgailuak ezinbesteko baliabidea izan behar du errendimenduak lortzeko.

2.- % 65eko edo gehiagoko minusbaliotasun maila duten pertsonak gidatzeko egokitutako ibilgailuak, desgaitasuna duen pertsonarenak berarenak baldin badira.

3.- Desgaitasuna duten pertsonak gurpil-aulkian garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak, zuzenean edo egokitu ondoren.

4.- 8 urte edo gehiagoko turismoak. Kontuan hartuko da lehenengo matrikulazioaren data.

B-1.2- Bizikidetz-unitateko ibilgailuak kontatzeko ez dira kontuan hartuko, bidaiariak garraitu ezin dituzten lanerako ibilgailuez gain, trakzio mekanikoko ibilgailuek herrestan eramaten dituzten kamioiak, autobusak, traktoreak, atoiak eta erdi-atoiak.

B-2 Bizikidetz-unitateko kontuen guztien urteko batez besteko saldoen baturak ezingo du ondorengo zenbatekoa gainditu:

- Kide 1: 7.500 euro
- 2 kide: 15.000 euro
- 3 kide: 22.500 euro
- 4 kide: 30.000 euro

4 kide baino gehiago dituzten bizikidetza unitateei 7.500 euro gehituko zaizkio hortik gorako kide bakoitzeko.

Alokairuko daduen bizikidetza-unitateen kasuan, ezin dute 30.000 euroko batezbesteteko saldoa gainditu kide kopurua edozein izanda ere.

C) Ondare mugak ez aplikatzeko salbuespenak:

Ezarritako mugak ez dira aplikatuko honako kasu hauetan:

C-1 Gizarte-zerbitzuek behar bezala informatutako kasuak.

C-2 Zaintza partekatua duten dibortzio edo banantze kasuak. Kasu horietan, guraso bakoitzak bete beharko ditu ondare-mugak.

C-3 Bizikidetza-unitateko kideren baten egungo lan-egoera azken diru-sarreraren aitortpena egin zenekoaren berdina ez bada, hau da, eskaera egiteko unean kideren bat gutxienez duela 6 hilabetez geroztik enplegu-eskatzaille gisa badago. Kasu horretan, ez dira kontuan hartuko bere aurreko diru-sarrerak, eta egungo egoeraren arabera birkalkulatuko zaizkio diru-sarrerak. Eskaera egin arte langabeziagatik izandako diru-sarrerak aurkeztu beharko ditu, eta urteko dagozkion diru-sarrerak kalkulatu zaizkio. Kasu horretan:

- a) Bizikidetza unitatearen ondasun higiezin bakarrak honako hauek izan beharko dute: ohiko etxebizitza, garajea eta trastelekua.
- b) Bizikidetza-unitateak, gehienez, bi ibilgailu izango ditu, eta horietako bat enplegu-eskatzaillearena izango da. Gidabaimena eta aseguruaren poliza aurkeztu beharko ditu.

## KUDEAKETA-ARAUAK

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Udalak Gipuzkoako Foru Ogasunean zuzenean kontsultatuko du, interesduna hala egitearen aurka azaltzen ez bada, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, salbuespenak eta murrizketak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazioa, eta, bereziki, datu hauek:

- Trafikoko Zuzendaritza Nagusia: Ibilgailuaren datuen kontsulta
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Ondasun higiezinaren kontsulta
- Eusko Jaurlaritza: Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen kontsulta
- Foru Ogasunak: PFEZ kontsulta
- Foru Ogasunak: Kontu-mailaren kontsulta
- Foru Ogasunak: Ondare mailari buruzko kontsulta
- Gizarte Segurantzako institutua: Gizarte prestazio publikoen kontsulta
- Lanbide: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia datuen kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia prestazioen egungo egoeraren kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Langabezia prestazioen aldiko zenbatekoaren kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Egungo datan enplegu eskatzaille giza inskribatua egotearen kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzua: Data zehatz batean enplegu eskatzaille giza inskribatua egotearen

kontsulta

Estatuko Enplegu Zerbitzua: Egungo datan langabezia egoeraren kontsulta

Hala ere, eskatzaileak uko egin ahal izango dio bere datuak kontsultatzeari; kasu horretan, bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du

**Laugarrena- Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Ordenantza fiskalaren 9. artikuluan 1. atala aldatzea, hobariaren %koa aldatzea, hain zuzen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, horrela geratuko da artikulua osoa:**

1.- Zerga honen kuotan %25eko hobaria izango dute 2/1997 Foru Arauaren 5. artikulua eta kidekoek aipagai dituzten lehen mailako bereziko babesturiko Kooperatibek. Hona hemen: Elkarlaneko kooperatibak, Nekazalekoei, Erkidegoan Ustiatzekoak, Irakaskintzakoak eta Etxebizitzenak eta Eraldatzeko Nekazaritza Elkartek

Hobari hau zergadunek eskatu behar dituzte eta aplikatu beharreko ekitaldiaren lehen hiruhilekoan eskatu beharko da. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko da lehen mailako bereziko babesturiko kooperatiba izateko agiria.

2.- Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira Elkarleen Erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko elkarleen, baldin eta Udalarekin batera lankidetzaren jarduerak burutzeagatik bertako organo eskudunak herri onurakoak izendatzen baditu.

Salbuespena aplikatuko zaie beren zeregin propioen barruan sartzen diren eta udalerriko gutxieneko kuotarekin zergapetzen diren jarduerari.

3- Zerga-kuotaren %50eko hobaria izango dute, jarduera garatu den bigarren zergaldia amaitu ondorengo lehen bost urteetan, edozein jarduera ekonomiko hasi eta gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenek.

4- Dagokion kuotaren %5, 10 edo 20ko hobaria izango dute, hurrenez hurren, udal kuotako zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboek, baldin hobaria aplikatu aurreko zergaldian kontratu mugagabeko langileen batez bestekoa handitu badute, zergaldi haren aurrekoaren aldean.

Hobaria honela aplikatuko da:

- A) Kuotaren %5, langileen gehikuntza %5 izan bada.
- B) Kuotaren %10, langileen gehikuntza %10 izan bada.
- C) Kuotaren %20, langileen gehikuntza %20 izan bada

Hobari hau zergadunek eskatu behar dituzte eta aplikatu beharreko ekitaldiaren lehen hiruhilekoan eskatu beharko da. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko da ondoko agiriak:

- Sinatutako lan kontratu mugagabedun kopia konpultsatuak.
  - Gizarte Segurantzako alta eta kotizazioa agiriaren kopia konpultsatuak
  - Subjektu Pasiboaren langileen zerrenda urte bakoitzean.
- Kontratu-motak aipatu behar dira.

5.-Gerta daiteke hobariaren bat baino gehiago jasotzeko eskubidea aldi berean izatea. Horrela gertatzen denean, zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da.

**Bostgarrena.-** Administrazio zerbitzuak emateagatik edo udal jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko Ordenantzaren 9,eranskina: Ur hornidura aldatzea, hiru tarifa berriak onartzea eta tarifak aplikatzeko arau berria gehitzea 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, horrela geratuko da:

**TARIFA BERRIAK:**

<b>M<sup>3</sup>ko KONTSUMO, ERABILTZAILEAREN ETA ZATIEN ARABERA BEREZITU BEHARKO DA</b>	<b>m<sup>3</sup>*€/ LAUHILEKO</b>
11. etxeetako hornidura %50eko murrizketarekin, hiri.-lurrean eta landa-lurrean (baserriak)	
65m <sup>3</sup> arte	<b>0,30</b>
65m <sup>3</sup> baino gehiago	<b>1,14</b>
12. etxeetako hornidura %75eko murrizketarekin, hiri.-lurrean eta landa-lurrean (baserriak)	
65m <sup>3</sup> arte	<b>0,15</b>
65m <sup>3</sup> baino gehiago	<b>1,14</b>
13. etxeetako hornidura %90eko murrizketarekin, hiri.-lurrean eta landa-lurrean (baserriak)	
65m <sup>3</sup> arte	<b>0,06</b>
65m <sup>3</sup> baino gehiago	<b>1,14</b>

**TARIFAK APLIKATZEKO ARAU BERRIA:**

**11.** 11., 12. eta 13. tarifak aplikatzeko, aldeztu aurretik ur-tarifaren murrizketa izapidetu eta adostu behar da, salbuespenei eta murrizketei buruzko erregelamendua arautzen duen ordenantzaren arabera, eta araudi hori betetzearen mende egongo da tarifak aplikatzea.

**Seigarena.-** Administrazio zerbitzuak emateagatik edo udal jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko Ordenantzaren 15,eranskina: **HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK ERABILTZE**A , izenekoa, **aldatzea**. Eranskinaren 15.3 ataleko **1 puntuan ondorengo eran geratuko da:**

1.-Esparrua

Eguneko arretan bi zerbitzu ematen dira:

1.-Jubilatuena etxean, eguneko arreta.

2.- Otorduak



**Zazpigarrena- Administrazio zerbitzuak emateagatik edo udal jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko Ordenantzaren 16,eranskinaren 04 atala: HERNANIKO UDAL KIROLDEGIA ZERBITZUAK ERABILTzea**, izenekoa, **aldatzea**, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Aldaketa da **Tarifak aplikatzeko 2. arauan, Ordainketa modua** izenekoan, **ondorengo testua gehitzea**:

**Kiroldegiko abonoak:**

Altan ematen den hilabetetik abenduaren 31 bitarteko epealdiagatik kobratuko dira abonoak. Urteko, sei hileko edo hiruhileko abonoen kasuan abenduaren 31 bitarteko epea eskatu nahi den abono mota baino laburragoa baldin bada dagokion kuotaren zati proportzionala ordainduko du erabiltzaileak, betiere alta ematen den hilabetetik abenduaren 31a bitarteko epea kontutan izanda. Altan egondako hilabete kopuruaren baitan kobratuko da abonoa.

**Zortzigarrena-Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharra egin ahal izateko.**

**Bederatzigarrena- Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.**

**Hamargarrena- Alkateari ahalmena ematea erabakiaren testua eta tributuak arautzen dituzten ordenantzak batera biltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.**

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2023ko irailaren 26an

Aitor Iztueta Garaikoetxea

Hernaniko behin-behineko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus)



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU217b0446-c3b4-4491-a6fe-8bad38b18cf5**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopia osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>